



Hezkuntza Sailaren, Euskal Herriko Unibertsitatearen, Deustuko Unibertsitatearen, Mondragon Unibertsitatearen eta Unibasq Agentziaren adierazpena bateratua

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, Euskal Unibertsitate Sistema osatzen duten unibertsitateek – UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea – eta Unibasq-ek –Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatearen Agentziak- koronabirusak eragindako osasun-larrialdiari erantzungo dioten lehentasunei buruzko akordiotara iristeko elkartu gara, epe labur eta ertainean etorkizuneko agertokiei erantzuna emango diotenak.

Lehenik, gure unibertsitate-testuinguruaren eta horrek denboran zehar garatu duen lanaren funtsezko elementu batzuk azpimarratu nahi ditugu:

- I. Euskal Unibertsitate Sistema Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan sartzeak berekin ekarri du ikaslea ardatz duen ikaskuntzan barneratzea, eta etengabeko ebaluazioa egitea gure unibertsitateetan erreferentziazko ebaluazio-sistema. Ebaluazio-eredu horrek, beraz, erreferentziazko eredu izan beharko luke irakaskuntza-eredu presentzialak, egoeraren arabera, urrutiko prestakuntzarantz eboluzionatu duen egoera batean.
- II. Hezkuntza Sailak, Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateekin eta Unibasq-ekin batera, modu estu eta koordinatuan lan egin du gai akademikoetan, eta horri esker, Euskal Unibertsitate Sistemak ezaugarri eta irakaskuntza- eta egiaztapen-eredu sendoak izan ditu egungoa bezalako egoera kritikoen aurrean. Hori da osasun-krisi honetan garatzen jarraituko den eredu; beraz, gure unibertsitate-sistema osatzen dugun eragileen arteko malgutasun- eta konfiantza-esparru batean, titulazioen egokitzapenari, irakasgaiei, praktikei eta horien ebaluazioari buruzko beharrezko neurri guztiak hartzen jarraituko da ikasturtearen amaierara arte, bai eta horien jarraipena egiten ere.

Osasun-larrialdiko egoera honetan, Hezkuntza Sailak, Euskal Unibertsitate Sistema osatzen duten unibertsitateek eta Unibasq-ek honako lehentasun hauek izan dituzte eta dituzte ardatz:

- I. **Osasun-krisiari eta pertsoneri arreta** ematea unibertsitate-testuinguruan, unibertsitate-komunitatearen osasuna eta segurtasuna lehenetsiz.
- II. **2019-2020 ikasturtea osatzea urrutiko prestakuntzaren bidez**, larrialdietarako urruneko irakaskuntza-metodologiak erabiliz eta lehentasuna emanez ikaskuntzaren emaitzak lortzeari eta titulazioetan formulatutako gaitasunak eskuratzeari, kalitate-estandar onenekin.
- III. Aurrez aurreko jarduera esperimentaletan eta kanpoko praktketan aurreikusitako **ikaskuntza-emaitzak arrazoizko neurrian lortzen direla ziurtatzea**. Horretarako, unibertsitateek hainbat aukera baloratu ahal izango dituzte, hala nola, ikasgai horiek birprogramatzea, aurrez aurreko jarduerari mugak kentzen zaizkionean; praktikak prestakuntza-metodologia alternatiboekin osatzea, ahal denean; edo ezohiko jarduera profesionalak aitortzea.
- IV. **Jarduera akademiko presentzial batzuk planteatzeko aukera ematea**, unibertsitate-jarduera presentzialera pixkanaka itzultzeko plangintzaren testuinguruan, betiere unibertsitate-komunitatearen osasuna eta segurtasuna zainduz, jarduera hori modu ez-presentzialean egitea ezinezkoa den kasu zehatzetarako.
- V. Baldintza sozio-ekonomiko, teknologiko edo bestelakoengatik urrutiko unibertsitate-prestakuntza normaltasunez baliatzeko zailtasun bereziak dituzten **ikasleen balizko zailtasun gehigarriak arintzea**.
- VI. **Planifikatutako esparru-egutegi akademikoa mantentzea**, kasu hauetan izan ezik: praktikak egitea, Gardu Amaierako Lanak, Master Amaierako Lanak eta Doktore-tesiak aurkeztea, edo ebaluazio-aldietarako, ikasleen garapen akademiko egokia bermatzeko ahaleginak eginez.
- VII. **Euskal unibertsitate-eskaintza akademikoaren** eta Euskal Unibertsitate Sistema osatzen duten unibertsitate-erakundeen **kalitatea bermatzea**, eta, bereziki, larrialdi-egoeraren testuinguruan prestakuntza dualaren eta gaitzailearen kalitatea.

VIII. **Euskal Unibertsitate Sistema indartzea** urrutiko prestakuntzaren esparruan eta etorkizuneko balizko larrialdien aurrean eman beharreko erantzunen aurreikuspenean eta plangintzan.

Bestalde, unibertsitate-komunitatearen ahalegin gehigarriak aitortzen dira, bai eta indarguneak ere, gure ustez euskal unibertsitate-ereduaren ezaugarri garrantzitsuak direnak:

- I. Unibertsitate-komunitate osoak egindako egokitzapen-lana eta ahalegina aitortzen dugu: arduradunek, irakasleek, AZP-k, ikasleek eta unibertsitate-misio nagusia den prestakuntzan laguntzen duten eragileek.
- II. Enpresa-eragileekiko eta beste erakunde batzuekiko lankidetzak prestakuntza dualaren ikaskuntza-emaitzak lortzea bermatu du, ikasleen ehuneko handi batek telelanaren modalitatean ikasten jarraitu ahal izan baitu. Gainera, irakasleen, enpresen eta erakundeen tutoretza mantendu egin da, oro har.
- III. Egiaztapen instituzionala Euskal Unibertsitate Sistemaren hedatzea funtsezko elementua da gure unibertsitateetan. Kalitatea egiaztatzeko eredu hori eragileen arteko erantzunkidetasunean oinarritzen da (kalitate agentzia, unibertsitatea), eta gure euskal unibertsitate-sisteman modu zabal eta berezian zabaltzen den ezaugarria da. Unibasq Agentziak gure egiaztapen instituzionalaren eredu propioa indartzeko lanean jarraituko du, gure unibertsitate-sistemaren berezitasunari are gehiago erantzuteko.
- IV. 2019-2022 Unibertsitate Sistemaren Plana tresna sendo eta malgua da, eta helburu nagusia Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateak indartzen laguntzea du. Jarraipen batzordeek 2019-2022 aldirako Unibertsitate Sistemaren Plana aztertuko dute osasun krisi honetan arreta jarriz, eta urrutiko hezkuntza modalitatea indartzeko.

Bat gatoz lankidetzan jarraitu behar dela, Hezkuntza Sailak unibertsitate-politikaren arloan dituen eskumenak, unibertsitateen autonomia eta Unibasq-en independentzia errespetatuz. Euskal Unibertsitate Sistemak sendotasuna, larrialdiaren aurrean malgutasuna eta lankidetzarako eta akordioetara iristeko gaitasuna erakutsi ditu. Gogor jarraituko dugu lanean,



eragileen arteko lankidetzan, erantzunkidetasunean eta konfiantzan oinarritutako eredu honen esparruan.

Cristina Uriarte, Hezkuntza sailburua

Nekane Balluerka, UPV/EHUko errektorea

Jose Maria Gubert, Deustuko Unibertsitateko errektorea

Bixente Atxa, Mondragon Unibertsitateko zuzendaria

Iñaki Heras, Unibasq agentziako zuzendari nagusia

Vitoria-Gasteizen, 2020ko apirilaren 8an